

Gora, bada, duguna eta eduki nahi duguna!

“Makina bat taupada martxan dabil eskola publikoan, makina bat bihotz, makina bat egitasmo. Gora euskal eskola publikoa! Bai noski! Gora, bada, euskal eskola publikoa, duguna eta, batez ere, eduki nahi duguna!”. Horrela hasi genuen aurreko ikasturtean plazaratu genuen iritzi artikuluetako bat.

2019-2020 ikasturtea hasi berri dugun honetan, inoiz baino indar gehiagorekin eusten diogu gizartean gero eta oihartzun zabalagoa duen aldarrikapen honi. Makina bat taupadek egunez egun eraikitzen dituzte gure auzo eta herrietako eskolak, norberak bere esparrutik: hezkuntzako langileak, familiak, ikasleak... talde gero eta indartsuagoak ditugu eta eskola publikoak bere izaera publiko eta unibertsala egunez egun erakusten du. *Gora, bada, duguna eta eduki nahi duguna* idatzi genuen, lan asko baitugu hezkuntza komunitatea osatzen dugun kideok: parte hartzea indartu behar dugu, eskola askotako ateak komunitateari gehiago ireki behar dizkiogu, erabakitze organoak parte hartzaileago egin behar ditugu eta joera merkantilistetan erori gabe, zer egin asko dugu alor pedagogikoan. Guztiona da ardura.

Baina, zoritxarrez, EAEko eta Nafarroako Gobernuak osatu duten eta osatzen duten alderdiak ezin ditugu aipatu herri apustu izan beharko litzatekeen aldarrikapen horiek bultzatzen dituzten artean. Nafarroako aldetaren gobernuak ez zituen hezkuntza publikoko langileekin eta eskolekin hartutako konpromiso asko bete: ehunka ordezko irakasle uda kobratatu gabe gelditu dira, eta gainera, itunaren beste atal batzuk ez dira garatu. Horregatik, berehala hasiko gara mobilizazioekin.

Gobernu biek LOMCEk jasotako “eskari soziala” eta “familiek ikastetxea aukeratzeko eskubidea” hezkuntza politiken ardatz izaten jarraitzen dute, hezkuntza paradigma kapitalistaren oinarria, alegia. Privatizazioa eta desarautzearen eufemismoa. LOMCEk diotenaren arabera *ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen uneko eskaintza eta familien eskaria kontutan izan behar dute administrazioek, eta behar adina plaza eskaintzen direla bermatu beharko dute, orobat*. Hau da hezkuntza sistema bat privatizatze bitarteko nagusienetarikoa eta ikastetxe baztertaileek erabiltzen duten baliabide ukaezin bat. Horretarako, beste tresna asko ere badaude: 0-2 adin tarteko haurreskola pribatuen finantziaketa unibertsala, hortik eratorritako matrikulazio iruzurra, legezkanpoko kuoten aurrean administrazioak beste aldera begiratzea, Lanbide Heziketa enpresarien eskutan uztea... Unibertsitateak aparteko lekua beharko luke. EHUK bizi duen utzikeria, unibertsitate pribatuak bizi duen hazkundearen parekoa da. Nafarroan unibertsitate pribatuaren gainfinantziaketa eta euskararen bazterketa dira hezkuntza politiken ardatz. Edonola ere, LOMCEren aurretik sare pribatua lehenesteko klientelismo politikak ohikoak izan dira itunpeko ikastetxe, unibertsitate eta Hezkuntza Sailen artean.

Guzti honen ondorioak aski ezagunak dira, besteak beste, segregazioa eta bazterketa soziala. Nafar gobernuaren eta EAEko gobernuaren privatizazio politiken beste ondorio nabarmen bat hezkuntzako langileen prekarizazioa da. Hau guztiagatik, une

honetan ez da nahikoa eskola publikoak sistemaren ardatz izan behar duela esatea, euskal hezkuntza-sistema osorako eskola bakarra aldarrikatu behar dugu, herri bezala publikoaren eta gure haur eta gazte guztientzako eskubide kolektiboen eta aukeraberdintasunaren alde eginez. Ekimen pribatuak ezin du seme-alabentzat euskara nahi ez dutenentzat ihesbide izan, desberdinarekin nahastu nahi ez dutenentzat babesleku edo hezkuntza erlijiosoak seme-alabei nahitaez inposatu nahi dutenentzat gotorleku. Administrazio publikoa ezin da izan jarrera horien konplize.

EAE n Hezkuntza Legea ere ate joka dugu, itxuraz, LOMCEren aterkipean egingo den legea eta ikastetxe pribatuen flotagailu izango dena. Konpondu beharreko arazoak asko diren arren, oraindik ez dakigu zein helbururekin egingo den legea. Badirudi "Euskal Hezkuntza Zerbitzua" eraiki nahi izango duela EAJak, eskola publikoa eta pribatua barnebiduko dituen asmakizun neoliberalak, sare pribatua betiketuko duena. Ikastetxeen autonomia handitzearen argudioarekin sistemaren desarautzea bilatuko dute lehiakortasuna handitzeko: ingelesa indartuz euskararen kaltetan, sare pribatuaren baldintzagabeko finantzaketa areagotuz. Baldintzagabeko diogu, Crista Uriartek garbi adierazi zuelako, berriro ere: eskaria izanez gero, ikastetxe pribatuak ituntzen jarraituko du EAJk.

Mailakatze soziala betiketzen duten neurri hauek guztiak Hezkuntza Lege berriaren bidez zehaztu eta ziurtatu ostean, segregazioa konpontzeko itxurakerietan jarraituko dute. Datorkigun LOMCIBERRIaren helburua "eskaera soziala"ri erantzun eta sistemaren desarautzea izan beharrean, hezkuntza eskubidea bermatu eta segregazioa konpontzea balitz, neurriak eta legea bestelakoak lirateke.

Itsurakeria da gure administrazioaren estrategia, hura esan eta auskalo zer egin. Berdintasuna eta inklusioaren aldeko hitz potoloak bota bai, baina gure ikastetxeetan desberdinen arteko eskubideen berdintasuna bermatzerakoan borondate eza agerikoa da. Gure hezkuntzak izan beharko lukeen kohesio tresna izan dadin ekintzak behar dira, joan den urtean SKOLAEren inguruan gertatutakoari erreparatzea besterik ez dago. Horregatik guztiagatik, denona eta denontzat den euskal eskola publiko baten alde borrokan jarraituko dugu pedagogia feministaren bidetik.

